
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

2018ko EMAITZEN AURRERAPENA

2018ko Emaitzen Aurrerapen hau argitaratuta, negoziazio kolektiboak iaz izandako bilakaeraren lehen panoramika bat eskaini nahi du Lan Harremanen Kontseiluak, 2019. urtearen hasieran abiapuntuko egoeraren proiektzioa egin eta gatazken eta enpleguari buruzko lehen aurrerapen bat ere eskaini nahi du, beste gai batzuekin batera, gai horiek urteko txostenean berriro ere sakonago landuko diren arren.

2019ko martxoa

I. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA.....4

**II. KONTRATAZIOAREN, AFILIAZIOAREN ETA
LANGABEZIAREN BILAKAERA.....26**

I. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAK

I.1 SARRERA

Negoiazio kolektiboaren egoerari eta bilakaerari buruzko azterketarik egin baino lehen, horrelako akordioen eraginpean dauden soldatakoen populazioa zein den zehaztu behar da, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak zeintzuk diren eta hitzarmen bakoitzaren eraginpean zenbat pertsona dauden jakin.

Aspalditik egiten du Lan Harremanen Kontseiluak lan hori, bi urtean behin, eta EAEko negoziazio kolektiboaren egitura esaten dioguna lantzen dugu. Horretarako, Gizarte Segurantzari kotizatzen dioten kontuetako jarduera ekonomikoekin lotutako enpleguaren datuak hartzen ditugu abiapuntu, eta administrazio publikoek emandako informazioarekin osatzen dugu.

Txosten honetan sartu ditugun 2018ko datuak lortzeko, 2016. urtean egindako azterketaren emaitzak hartu ditugu eta hitzarmenen unibertsoa eta hitzarmen horien eraginpeko langile kopurua eguneratu dugu, hileroko, argitaratutako enpresa-hitzarmenetatik ateratako informazioan oinarrituta (estatistika-orriak).

2012ko lan erreformak, besteak beste, hitzarmenen aurrera eragina delakoa aldatu zuen eta ezarri zuen, hitzarmen kolektiboa salatu ondoren hitzarmen berria adostu gabe urtebete igarotzen bada, hitzarmenak indarra galduko duela, kontrako itunik ez baldin badago, eta goragoko mailako hitzarmen kolektibo aplikagarri badago, huraxe aplikatuko dela.

Hartara, estatistika ondorioetarako, hitzarmena iraungi ondoren, haren ordezkari hitzarmen berririk eta babesteko maila goragoko hitzarmenik ere ez duten langileak, hitzarmena iraungita duten eta hitzarmenen babesik ez duten langileak direla esan dugu negoziazio kolektiboaren jarraipena egiteko txostenetan.

Orain arte azaldutakoa kontuan izanik, negoziazio kolektiboko akordioei atxikitako soldatakoak 577.433 ziren 2018/12/31n, eta hor sartzen dira hitzarmena galdu eta oraindik berreskuratu ez dutenak, une horretan negoziazio kolektiboaren babespetik kanpo dauden arren. Kolektibo hori lurralde eremuaren arabera bana daiteke (EAE edo Estatua), edo eremu funtzionalen arabera (sektoreko edo enpresako hitzarmenak).

Hori da azterketa guztiak egiteko aintzat hartuko dugun guztizko unibertsoa (577.433 pertsona); beraz, kolektibo horretan ez dira sartzen ez funtzionarioak, ezta hitzarmen baten eremu funtzionalaren eraginpean inoiz egon ez diren langileak ere –lan egiten duten enpresaren jardura dela eta–.

Era berean, lehen ere aipatu dugunez, hitzarmenaren indarraldiaren arabera eta estatistika ondorioetarako, langileak hiru kategoriatan banatzen dira: hitzarmena indarrean duten langileak, hau da, hitzarmena bertan ezarritako indarraldi arruntaren barruan dutenak; hitzarmenak luzatuta dituzten langileak, hau da, hitzarmenaren indarraldia luzatuta izanik, berritzeko zain edo aurrera eragineko erregimenean daudenak; eta hitzarmenak iraungita dituzten langileak, hau da, hitzarmena iraungita dutenak eta goragoko eremuko ezein hitzarmenen babespean ez daudenak.

Lan erreforma indarrean hasi zenetik denbora apur bat igaro den arren, gure ustez, egokia da iraungitako hitzarmenen bilakaeraren jarraipena egiten jarraitzea, besteak beste, gaur egun langile asko daudelako hitzarmen baten babesik gabe.

Azterketa honetan ez ditugu kontuan hartu funtzionarioentzako lan-baldintzen akordioak, ezta estatutuz kanpoko itunak ere.

I. kapituluaren azken atalean, 2019. urtearen hasieran negoziazio kolektiboaren egoera zein den aztertuko dugu. Abiapuntuko egoeraren proiektzio hori egiteko, 2018. urtean egindako negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko azken azterketan bildutako langile kopurua hartu dugu kontuan: 605.354 langile. Azterketa hau egiteko aurrekoetako metodologia bera erabili dugu; beraz, orain arte emandako informazioarekiko koherentziari eutsi egin diogu, eta egitura berri horren datuak 2019ko eta 2020ko azterketetarako erabili ahal izango dira.

I.2 NEGOIZAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2018AN


2018. urte hasieran EAEko langileen %22,5ek hitzarmena indarrean zuten, %58,1ek hitzarmen luzatua zuten, eta %19,4k, berriz, hitzarmenak iraungiak zituzten eta berreskuratu gabe.

Urtearen amaieran, hitzarmenak indarrean zituztenak %47,3 ziren, langileen %37,8k hitzarmenak luzatuta zituzten eta %14,9k iraungiak.

Era berean, esan behar dugu 2014. urtera arte atzera egin beharko genukeela ekitaldiaren amaieran hitzarmenak eguneratuta (erabateko indarraldian) dituzten langileen ehuneko handiagoa aurkitzeko.


Hitzarmenak iraungita dituzten langileen ehunekoari dagokionez, ekitaldiaren amaieran, soldatuen %14,9 izateraino murriztu da; azken lan erreforma indarrean hasi zenetik daturik onena izan da hori.

1. GRAFIKOA.
2018ko NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAEn



- Hitza iraututa duten eta goragoko eremuko beste hitza baten babesik ez duten langileen ehunekoa
- 2018an hitza luzatuta eta berri gabe duten langileen ehunekoa
- Hitza indarrean duten langileen ehunekoa

2. GRAFIKOA.
EA EKO LANGILEEN PORTZENTAJE ZKO BANAKETA, HITZARMENAREN
INDARRALDIAREN ARABERA (URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31AN)



Iraungitako hainbat hitzarmen sektorial berreskuratu izanari eta, batik bat, sektore eremuan akordioak lortu izanari esker, langileen %24,8k hitzarmenak eguneratu dituzte 2018an, azken 5 urteotako ehunekorik handiena izanik.

1. koadroan, 2018. urte osoan erregistratutako hitzarmen kolektiboen kopurua adierazten da, baita hitzarmen horien eraginpeko langileen kopurua ere. 2018. urtean, 317 hitzarmen erregistratu dira, 2017an (304 hitzarmen) eta 2016an (288 hitzarmen) baino gehiago; horrek esan nahi du 146.294 lagunen lan-baldintzak berritu direla, 2017an (95.787) baino %52,7 eta 2016an (98.728) baino %48,2 gehiago.

Lurralde eremuaren arabera (EAE/Estatua), 2018. urtean EAEn 222 hitzarmen erregistratu ziren eta 88.160 langile hartzen zituzten eraginpean; aldiz, Estatuko eremukoak izanik EAEn eragina duten 95 hitzarmen negoziatu ziren 2018, eta 58.134 langile hartzen zituzten eraginpean.

1. KOADROA.
2018. URTEAN ERREGISTRATUTAKO
HITZARMEN KOLEKTIBOAK, EAEn ERAGINA DUTENAK

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZAR MEN KOP.	LANG. KOP.	HITZA RMEN KOP.	LANG. KOP.	HITZAR MEN KOP.	LANG. KOP.
GUZTIRA (1+2)	265	33.231	52	113.063	317	146.294
1.-EAEn erregistratutakoak	201	20.949	21	67.211	222	88.160
Araba	47	5.685	4	8.823	51	14.508
Bizkaia	89	7.891	9	41.003	98	48.894
Gipuzkoa	63	6.067	8	17.385	71	23.452
Lurralde artekoa	2	1.306	-	-	2	1.306
2.- Estatuko eremua	64	12.282	31	45.852	95	58.134

EAEko sektore eremuko negoziazioa da hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen kopurua handitzeko arrazoi nagusia; izan ere, sektoreko 21 hitzarmen erregistratu dira 2018. urte osoan EAEn, eta 67.211 soldatoko hartu dituzte eraginpean. Aitzitik, aurreko urtean (2017) sektoreko 15 hitzarmen baino ez ziren erregistratu EAEn, eta 21.137 lagun hartu zituzten eraginpean.

Iraungitako hitzarmenei dagokienez, eraginpeko langileen kopuruak behera egin duela esan behar dugu, 2017aren amaieran 110.398 izatetik 2018an 86.027 izatera jaitsi baitzen, batik bat, hainbat hitzarmen sektorial berreskuratu zirelako Bizkaian. Araban eta Gipuzkoan, hitzarmenak iraungita dituzten langileen ehunekoak ez du gorabehera handirik izan, hein handi batean, industria siderometalurgikoan hitzarmen sektorialik ez

dagoelako; dena den, Arabaren kasuan, 2016. urtean sektore horretan estatutuz kanpoko itun bat sinatu zela aipatu behar da. Bizkaiari dagokionez, industria siderometalurgikoaren hitzarmena aurrera eragineko egoeran dago 2003. urteaz geroztik eta, harrezkero, estatutuz kanpoko hainbat itun sinatu dira, azkena 2008an.

2. KOADROA.
HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HITZARMEN HORIEN ERAGINPEKO
LANGILEAK 2018/12/31n, EGOERAREN ARABERA

	INDARREAN		LUZATUTA		IRAUNGITA*		GUZTIRA	
	HITZA RM.	LANG.	HITZA RM.	LANG.	HITZA RM.	LANG.	HITZA RM.	LANG.
GUZTIRA (1+2)	717	272.983	597	218.423	35	86.027	1.349	577.433
1.-EAEn erregistratutakoak	493	151.439	460	179.155	31	85.207	984	415.801
Araba	109	33.249	74	9.744	6	16.007	189	59.000
Bizkaia	219	79.149	213	92.414	14	15.480	446	187.043
Gipuzkoa	156	36.589	142	39.173	11	53.720	309	129.482
Lurralde artekoa	9	2.452	31	37.824	-	-	40	40.276
2.- Estatuko eremua	224	121.544	137	39.268	4	820	365	161.632

*Hitzarmenak iraungita izanik, goragoko eremuko hitzarmenen babesik ez duten langileak

Laburpen modura, 2. koadroan negoziazio kolektiboaren egoera 2018/12/31n zein zen adierazten da; hain zuzen ere, zenbat hitzarmen eta hitzarmen bakoitzaren eraginpeko zenbat langile dauden lurraldearen arabera, egoerari jarraikiz (indarrean, luzatuta edo iraungita) sailkatuta.

2018. urtean hobekuntza gertatu den arren, hitzarmenak berri ez direlako luzatuta dituzten EAeko langileen kopurua handia dela nabarmendu behar dugu, eta hitzarmenak iraungita dituzten soldatuen kopurua ere bai.

I.3 NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA LURRALDE EREMUAREN ARABERA

3. grafikoan, negoziazio kolektiboak lurralde eremu bakoitzean zer portaera izan duen ikus dezakegu, eta alde handiak izan dira, gainera.

Negoiazio kolektiboa askoz biziagoa izan da Estatuko eremukoak izanik EAEn eragina duten hitzarmenetan, baita Araban eta Bizkaian ere, betiere Gipuzkoan negoziatutakoekin alderatuz gero eta, batez ere, lurralde arteko eremuan, aurrerapena oso txikia izan baita.

Arabaren, langileen %24,3k hitzarmenak erregistratu zituzten 2018an eta,

ekitaldiaren bukaeran, langileen %56,4 indarreko hitzarmen kolektibo baten babespean zeuden; ehuneko hori 2017koa (%40,7) baino 15,7 puntu handiagoa da.





Bizkaiari dagokionez, langileen %25,5ek beren hitzarmenak berritu zituzten eta urtearen amaieran langileen %42,3k hitzarmena eguneratua zeukaten. Ehuneko hori 2017. urte amaierakoa baino (%34,1) handiagoa da, argi eta garbi.

Bestalde, Gipuzkoan¹ 2018. urtean erregistratutako hitzarmenek langileen %18,1 baino ez zituzten eraginpean hartu, eta urtearen amaieran, soldatuen %28,3k zituzten hitzarmenak indarrean, 2017an baino 6,8 puntu gehiago (%21,5).

Lurralde arteko negoziazioari dagokionez, esan beharra dago eremu horretakoak zirela abiapuntuko mailarik txikiak urte hasieran, eta ekitaldi osoan ere bizitasun txikiak izan dela, 2018an berritutako hitzarmenek langileen %3,8 baino ez baitituzte hartzen eraginpean eta 2018aren amaieran indarrean zeuden hitzarmenek (indarraldi arrunta) langileen %6,1 hartzen dituztelako eraginpean. Nolanahi ere, nabarmentzeko modukoa da eremu horretan ez dagoela langile bat bera ere hitzarmena iraungita duela.

¹ Besteak beste, Gipuzkoako Ehunaren Merkataritzaren Lan Hitzarmena, GAOn 2018/06/28an argitaratu zena; horri dagokionez, 2019ko urtarrilaren 15ean EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak epaia eman du eta estatutuz kanpoko hitzarmena dela esan du, baina txosten hau argitaratu dugun egunean ez da irmoa.

3. GRAFIKOA.
2018ko NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAeko LURRALDE EREMUEEN ARABERA



2018/01/01eko datuak

2018/12/31ko datuak

- Hitzarmena iraungita duten eta goragoko eremuko beste hitzarmen baten babesik ez duten langileen ehunekoa
- Hitzarmena 2018an luzatu eta berritu gabe duten langileen ehunekoa
- Hitzarmena indarrean duten langileen ehunekoa

EAEn eragina duten Estatuko eremuko hitzarmenei dagokienez, 2018an hitzarmenak indarrean dituzten langileak %75,2 izan dira, eta soilik langileen %0,5ek dute hitzarmena iraungita.

Hori gertatu da hasierako egoera hobea izateagatik (%40,7k jada berriua 2018. urte hasieran), eta urtean zehar egindako negoziazioagatik, %34,5 izan baitzen.

Lurralde eremu guztietan, oro har, 2018. urtean sektoreetan lortutako akordioei dagokienez, honako hitzarmen hauek nabarmendu behar dira, garrantzitsuak direlako:

Araban, Eraikinen eta lokalen garbiketaren hitzarmena, Esku-hartze sozialaren hitzarmena eta Ostalaritzako hitzarmena; oro har, 8.700 lagun babesten dituzte.

Bizkaian, iraungita zeuden bi hitzarmen sektorial berreskuratu direla nabarmendu behar da: Eraikinetako eta aretoetako garbikuntzaren hitzarmena (ia 12.000 langile) eta Metalaren merkataritzarena (8.700 pertsona baino gehiago). Gainera, Ostalaritzako Hitzarmena berriua da (18.000 langile), Eraikuntzako (ia 10.000 langile), Hirugarren Adinekoentzako Zentroetakoa (4.938 pertsona), baita Errepide bidezko bidaiarien garraioarena eta Esku-hartze sozialarena ere (oro har, 3.000 langile).

Gipuzkoan² honako hauek nabarmentzen dira: Eraikuntza eta Herri Lanetakoa (ia 5.500 soldatako), Eraikinetako eta aretoetako garbikuntza (4.821), Ostatu etxeak (1.800 langiletik gora), Bide garbiketa publikoa eta hiri hondakin solidoak (1.000 langile baino gehiago) eta Bidaiarien garraioa (700 bat langile).


EAEn eragina duten Estatuko eremuko hitzarmenen artean, eraginpeko langile kopuruarengatik Kontsultoretza zerbitzu eta merkatu azterlanen hitzarmena aipatu behar dugu (9.000 eraginpeko), Industria Kimikoarena (8.300 langile baino gehiago), Aldi baterako laneko enpresena (6.543), Segurtasun Enpresen hitzarmena (6.034 langile), Ile-apaindegi, Edergintza Institutu eta Gimnasioena (ia 2.700) eta Mendetasuna dutenei arreta ematekoa (2.000 langile baino gehiago).

Negoiazio kolektiboaren bilakaera ikuspegi zabalago batetik begiratuta aztertzen badugu, eta soilik EAEn negoziatu diren hitzarmenen bilakaerari erreparatzen badiogu –gure autonomia-erkidegoan eragina duten Estatuko eremukoekin alderatuta–, lan erreforma indarrean hasi zenez geroztik Estatuko eremuko hitzarmenak EAEn negoziatutakoei gailentzen ari zaizkiela ikusiko dugu.

² Ikus 1. oharra.

Horrela, bada, lan erreforma ezarri zenetik, berritu ez izanagatik hitzarmenik gabe zeuden soldatakoen zati bat Estatuko eremuko hitzarmen baten babespean geratu da.

4. GRAFIKOA.
EAEⁿ NEGOZIATUTAKO HITZARMENEN / EAEⁿ ERAGINA DUTEN
ESTATUKO EREMUKO HITZARMENEN BABESPEKO PERTSONAK.
(ABENDUAREN 31ko DATUAK)





Alabaina, egoera hori alderantzikatu egin da –partzialki bada ere– 2018. urtean, iraungita zeuden EAEko hitzarmen sektorialak berreskuratu izanari esker.

Zentzu horretan, 2018. urtearen amaieran, hitzarmen baten babespean zeuden langileen %67,3 EAEⁿ negoziatutako hitzarmen baten eraginpean zeuden; aldiz, 2017. urtean, %66 ziren, hau da, termino absolutuetan ez da aurrerapen handirik gertatu, baina joera positiboa adierazten du negoziatio kolektiboaren geure eremu propioak berreskuratzeari dagokionez.

I.4 NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA EREMU FUNTZIONALEN ARABERA

2018ko NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EREMU FUNTZIONALEN ARABERA **5. GRAFIKOA.**



2018/01/01eko datuak


2018/12/31ko datuak

- Hitzarmena iraungita duten eta goragoko eremuko beste hitzarmen baten babesik ez duten langileen ehunekoa
- Hitzarmena 2018an luzatu eta berritu gabe duten langileen ehunekoa
- Hitzarmena indarrean duten langileen ehunekoa

Negoiazio kolektiboa eremu funtzionalen arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu enpresako hitzarmenen babespean zeuden langileen %58,2k hitzarmena eguneratuta bukatu dutela 2018. urtea, eta sektoreko hitzarmenaren kasuan, %43,7 dira. Beraz, negoziazio sektorialean gehiago egin da aurrera, 2018 osoan sektoreko hitzarmenei atxikitako langileen %25,7k berritu zituztelako akordioak, enpresako akordioei atxikitakoak %20,9 izanik. (5. grafikoa).

Ekitaldiaren itxieran, enpresako hitzarmena indarrean duten langileen ehunekoa oso gutxi aldatu zen 2017koarekin alderatuta. Puntu eskas egin du gora.

Hala ere, sektoreko hitzarmenei dagokienez, egoera iazkoaren oso bestelakoa da, 2018. urtea amaitzean hitzarmena indarrean duten langileen kopurua 2017koa baino 10 puntu handiagoa izan baita.



Azkenik, iraungitako hitzarmena duten langile gehien sektore eremuan metatzen da oraindik ere, nahiz eta egoerak nabarmen egin duen hobera hor ere. Urte hasieran, hitzarmen sektorialeki atxikitako soldatuen %25,1ek hitzarmena iraungita zuten, eta ehuneko hori 5,4 puntu murriztu da urte osoan, %19,7ra.

Enpresako eremu funtzionalaren barnean hitzarmenak iraungiak dituzten pertsonen ehuneko txiki horren arrazoia da, alde batetik, enpresako hitzarmenen negoziazioan bizitasun handiagoa izana, eta bestetik, kasu gehienetan izatea enpresako hitzarmenak iraungiak dituzten langileei babespea emateko sektoreko hitzarmenak (probintziakoak edo estatukoak).

Nolanahi ere, enpresako negoziazioak estaldura mailaren ganean duen eragina mugatua da, enpresako hitzarmenaren (indarrean daudenak eta luzatutakoak) babespeko langileak %25etik behera baitira.


Oro har, eta ondorio gisa, zera esan dezakegu, eremu funtzionalen arabera, 2018. urtean negoziazio sektorialeak garrantzi handiagoa lortu duela enpresakoak baino (6. grafikoa), batik bat, iraungitako zenbait sektore hitzarmen berreskuratu izanagatik.

Ekitaldiaren hasierako eta amaierako egoerak alderatuz gero, langileen guztizkoaren %4,5ek iraungitako hitzarmena berreskuratu duela ikusiko dugu.

1.5 NEGOZIAZIO PROZESUEN IRAUPENA

2018. urtean indarrean zeuden eta EAEn negoziatu ziren hitzarmen kolektibo sektorialetako negoziazio prozesuen batez besteko iraupena 627 egun izan zen; horrek esan nahi du prozesu horien iraupena nabarmen luzatu dela 2017. urtean indarrean zeuden hitzarmenen batez besteko negoziatioaldiarekin alderatuta (491 egun).

2018. urtean EAEko negoziazio sektorialean nabarmen aurreratu den arren, eremu horretan akordioak lortzeko oraindik ere zailtasunak daudela esan behar da; horren ondorioz, batez beste, negoziatioak 600 egunetik gora luzatzen dira, krisialdiaren aurreko urteetako batezbestekotik (250 egun baino gutxiago) oso urrun oraindik.




1.6 NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EMAITZAK 2018rako

SOLDATA IGOERAK

EAEn indarrean dauden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata igoera 2018rako, EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenak barne, %1,86 izan zen, Estatu osoan hitzarmen kolektiboek itundutako soldata

igoeraren baino 11 ehunen handiagoa, kasu horretan %1,75 izan baitzen³ (8. grafikoa).


EAE barruan, gure autonomia-erkidegoan negoziatu diren hitzarmenak soilik hartuta erreferentziatzen eta, beraz, Estatukoak izanik EAEn eragina dutenak alde batera utzita, igoera %1,91 izan zen, Estatukoak izanik EAEn eragina duten hitzarmenetan (%1,78) baino 13 ehunen gehiago.



³ Estatu osorako itundutako soldata igoera Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioak 2019/01/31n emandako informazioaren arabera.

⁴ Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantzza Ministerioak ekitaldi bakoitza itxitakoan argitaratutako datuak, geroagoko eguneratzeak aintzat hartu gabe.

9. GRAFIKOA.
EAE. INDARREKO HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK. ENPRESA-SEKTOREA



EAEn indarrean dauden hitzaarmenetako soldata igoeren bilakaera eremu funtzionalaren (enpresa edo sektorea) arabera aztertuz gero, 2018an igoerak handiagoak izan ziren eremu sektorialean (%1,97), enpresa eremuan baino (%1,59).

Azken hiru urteotan, eremu horietako soldata igoerak antzeko samarrak izan dira, baina enpresa hitzaarmenetako soldata igoerak handixeagoak izan ziren 2016. eta 2017. urteetan.

3. KOADROA.
2017. eta 2018. URTEETARAKO HITZARTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	SOLDATA IGOERA	
	2017	2018
EAE GUZTIRA	%1,48	%1,86
- EAEn erregistratutakoak	%1,57	%1,91
Araba	%1,55	%1,94
Bizkaia	%1,55	%2,00
Gipuzkoa	%1,67	%1,70
Lurralde artekoa	%1,34	%1,53
- Estatuko eremua*	%1,37	%1,78

*EAEn eragina duten estatu mailako hitzaarmenen igoera

2018rako berrikusteko edo soldata bermatzeko klausulek ekarpen oso txikia egin diote batez besteko soldata igoerari (%1,86), 0,02 puntu baino ez. Horren arrazoia izan daiteke gero eta gehiago ezartzen direla enpresa helburuak betetzearekin baldintzatutako berrikusteko klausulak, eta ezinezkoa da horren efektuak zeintzuk diren jakitea; horrekin batera, soldata bermatzeko klausula konbentzionalak –hau da, KPIaren bilakaera zutenak erreferentzia bakarra– gutxitzen ari dira.

Era berean, 2018. urtean EAerako erregistratutako hitzarmenetako –gure Autonomia Erkidegoan eragina duten Estatukoak barnean hartuta– soldata igoera %2,15 izan zen; beraz, negoziazio kolektiboan itundutako ordainsarien gehikuntzek goranzko joera agertzen dute bilakaeran.

Azkenik, erosteko ahalmenaren bilakaera balioetsi ahal izateko, 2018rako hitzartutako batez besteko igoera urtetik urterako inflazioa –2018ko abenduan, EAEn– baino handiagoa izan dela esan behar dugu (%1), baita 2018an erregistratutako batez beste inflazioa baino handiagoa ere (%1,6%); 2018an EAEko BPGa %2,8 hazi zen.

LANALDIA

Indarrean eta baldintzak eguneratuta zituzten hitzarmenetan 2018. urterako hitzartutako batez besteko lanaldia 1.701 ordu izan da EAEn, oro har, eta alde nabarmenak daude bertako negoziazioaren eta Estatukoa izanik EAEn eragina duen negoziazioaren artean: 1.687 ordu EAEn erregistratutako hitzarmenetan, eta 1.719 ordu Estatuan erregistratu eta EAEn eragina duten hitzarmenetan.

4. KOADROA. INDARREKO HITZARMENAK. 2018. URTERAKO HITZARTUTAKO BATEZ BESTEKO LANALDIA

	EAEn negoziatuta (1)	EAEn aplikatzekoak (2)	ESTATU osoan aplikatzekoak (3)
- Hitzarmenen guztizkoa	1.687	1.701	1.745
Lehen sektorea	--	1.780	1.769
Industria	1.688	1.698	1.752
Eraikuntza	1.707	1.707	1.739
Zerbitzuak	1.746	1.752	1.742

1) EAEn negoziatutako indarreko hitzarmenak

(2) EAEn negoziatutako indarreko hitzarmenak gehi Estatuan indarrean daudenak EAEn eragina dutenak.

(3) Estatu osoan aplikatzekoak diren hitzarmenak

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa eta LHK

2018. urtean aurreko ekitaldiarekiko lanaldi murrizketa zekarten hitzarmenen proportzioak gora egin du aurreko urteetan indarrean zeuden hitzarmenekin alderatuta. Horrela, bada, 2018. urtean lanaldia murriztu duten hitzarmenak %8,5 dira, eta 2017an %5,6 eta 2016an %3 izan ziren.

Lanaldia murriztu duten hitzarmenen ehuneko hori 2013koa (%5,9) eta 2012koa (%7,4) baino handiagoa da jada.

Era berean, lanaldi murrizketa horren zenbatekoa iazkoa baino handiagoa da. Zehazki, 2018an, batez beste, urtean 1,44 ordu murriztu ziren eta 2017an, berriz, 21 minutu (0,35 ordu urtean) baino ez.

Lanaldi murrizketa handiagoa izan da EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenetan (-2,06 ordu), eta EAEn negoziatutako kasuan, murrizketa ia ordubeteko izan da.

4. koadroan, 2018rako itundutako batez besteko lanaldiak ikus daitezke jarduera sektorearen arabera, eta EAEn negoziatu diren hitzarmenak bereizten dira EAEn aplikatzekoak direnen artetik, baita Estatu osoan aplikatzekoak direnak ere.

Oro har, EAEn aplikatzekoak diren hitzarmenetan hitzartzen diren lanaldiak txikiagoak dira Estatu osorako hitzartzen direnak baino (1.701 ordu eta 1.745 ordu, hurrenez hurren).

Alabaina, jarduera sektorearen arabera, aldea dagoela ikus dezakegu. Lehen sektorean –negoiazioa EAEn izaten da–, ez dago ia alderik; zerbitzuen sektorean, aplikatu beharreko lanaldiak luzeagoak dira Estatu osorako itundutakoak baino; industrian eta eraikuntzan, aldiz, nabarmen txikiagoak dira.

EAEn negoziatutako hitzarmenak soilik aintzat hartuz gero (EAEn eragina duten Estatukoak alde batera utzita), bate besteko lanaldia 1.687 ordura murrizten da.

EAEn aplikatzekoak diren hitzarmenen barruan, itundutako lanaldi txikienak industrian (1.698 ordu) eta eraikuntzan (1.707 ordu) aurkitu ditugu, eta horien atzetik datoz zerbitzuen sektorea (1.752 ordu) eta lehen sektorea (1.780 ordu)

LANA ETA FAMILIA BIZITZA BATERAGARRI EGITEA

Aurrerapen honetan bigarren aldiz, 2018. urtean EAEn indarrean zeuden 717 hitzarmen kolektiboetatik, lana eta familia bizitza bateragarri egiteko neurriak zenbat hitzarmenetan ezarri ziren zehazteko azterketa estatistikoa egin dugu. Azterketa horren arabera, 324 hitzarmenetan ezarri ziren horrelako neurriak, hau da, hitzarmen guztien %45,2n.


Hitzarmen horietako gehienetan jasotzen diren neurriak edoskitzeko eskubidea lanaldi osotan metatzeko aukerarekin daude lotura, eta gainerakoan, indarreko legedian ezarritakoa hobetzen duten ordaindutako baimenak dira, familiaren edo norberaren gorabeherak direla eta.

Indarrean dauden enpresa hitzarmenen %46,4ren kasuan, bateragarri egiteko neurriak ezartzen dira; sektoreko hitzarmenetan, aldiz, %39 dira. Lurraldearen arabera, EAEn negoziatu diren hitzarmenen %40,8n horrelako neurriak arautzen dituzte eta Estatuan negoziatu baina EAEn eragina dutenen kasuan, %55 dira; dena den, enpresa handiak izan ohi dira edo, bestela, eraginpeko langile ugari dituzten Estatuko eremuko sektore hitzarmenak.

Ehuneko horiek aurreko bi urteetako antzekoak dira, eta aldaketa txikiren bat egon daiteke urte zehatz batean eguneratuta edo luzatuta dauden hitzarmenen kopuruaren arabera; beraz, gai honetan ez da aurrerapen garrantzitsurik gertatu.

1.7 HITZARMEN KOLEKTIBOEN EZ-APLIKATZEAK EAEn

2018. urtean, Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan aurkeztutako ez-aplikatzeen kopuruak behera egin zuen berriro ere, aurreko ekitaldian 22 kasu izan baitziren eta 2018an 18; horrek esan nahi du urte arteko jaitsiera -%18,2 izan dela.



Halaber, eraginpeko pertsonen kopurua -%26,9 murriztu da. 2017. urtean 483 langile izan ziren ez-aplikatzeen eraginpean eta 2018an 353 pertsona; azken hiru urteotan asko jaitsi da ez-aplikatzeen eraginpekoen kopurua.

Aipatu behar da, halaber, 2018an eta 2017an VICRILA Vidrieras y Cristalerías de Lamiaco, S.A. enpresak ez-aplikatze bana aurkeztu zuela eta azken ekitaldian 238 langile izan zirela eraginpekoak, hau da, ez-aplikatzeen eraginpean dauden langile guztien %67,4.

EAEko Lan Agintaritzan gordailuratu ziren ez-aplikatze guztietatik, 16 kasutan hala jokatzeko erabakia hitzartu zuten bi aldeek kontsultaldian, eta beste 2 kasutan hitzarmenaren batzorde paritarioan hartu zen erabaki hura.

Era berean, aurreko urtean bezalaxe, 2018. urtean ere ez zen ez-aplikatze eskaerarik iritsi ORPRICCE Estatutuaren arabeko Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organora.

Estatu osoari dagokionez, 2018. urtean 987 ez-aplikatze aurkeztu ziren eta 20.924 langile hartu zituzten eraginpean; aurreko urtearekin alderatuta, ez-aplikatzeak -%8,3 murriztu dira eta, eraginpeko enpleguari dagokionez, -%11,4 gutxiago izan da. 2018an, zerbitzuen sektorean metatu zen ez-aplikatze guztien %73,9; horren atzetik eraikuntza dator (%11,7), industria (%10,6) eta nekazaritza sektorea (ez-aplikatzeen %3,9).

EAEen hitzarmenetatik aplikatu ez diren gaiei dagokienez, soldataren zenbatekoa –bakarrik edo beste gai batzuekin lotuta– 18 ez-aplikatzeetatik 17tan agertu zen, eta baldintzak ez aplikatzeko kasu bakarra egon da laneko denboraren ordutegiarekin eta banaketarekin lotuta.

Estatuaren kasuan, aplikatu ez ziren laneko baldintzak soldatarekin lotutakoak izan ziren, gehienbat, eta bakarrik edo beste gai batzuekin lotuta, ez-aplikatze guztien %78,7 izan ziren.

EAEen aurkeztutako ez-aplikatzeetatik, oro har, bi Arabako Lan Agintaritzan aurkeztu ziren, 6 Gipuzkoan eta 10 Bizkaian.

Azkenik, berriz aipatu nahi genuke ez-aplikatzeen eraginpeko langileen kopurua txikia dela, negozioazio kolektiboaren babespean dauden soldatakoen populazioa zenbatekoa den aintzat hartuta, eta prozedura, oro har, kontsultaldian amaitzen dela ere kontuan izanik, bi aldeak ados jarrita.

I.8 NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2019. URTEAREN HASIERAN

2018. urtearen amaieran eskura dugun informazioarekin, eta urte berean egindako negozioazio kolektiboaren egituraren azterketetako datuak hartuta, jarraian, 2019. urtearen hasieran negozioazio kolektiboaren abiapuntuko egoera zein den aztertuko dugu.

2019. urtean jada berrituta dauden hitzarmenek (urte anitzeko indarraldia) 212.495 langile hartzen dituzte eraginpean, hau da, guztizkoaren %35,1. Hitzarmenak luzatuta eta berritzeko zain dituzten langileak 286.505 dira (%47,3), eta 106.354 pertsonak (%17,6) hitzarmena iraungita dute.

Abiapuntuko egoera hori 2018koa baino nabarmen hobea da, iaz hitzarmena berritzeko zain zeuden langileen ehunekoa %58,1 baitzen, eta hitzarmenak jada berrituta zituzten pertsonena %22,5, hau da, 2019aren hasierakoa baino 12,6 puntu gutxiago.


Sektore eremuan murriztu da gehien urte hasieran hitzarmena berritu edo berreskuratu gabe duten langileen ehunekoa (%65,8, 2018aren hasieran %82 izanik). Hortaz, enpresa eremuari dagokionez, egoera iazkoaren antzekoa da: langileen %61,8k hitzarmena luzatuta edo iraungita du urtearen hasieran (2018an %62,7).

EAEn egiten den sektoreko negoziazioari berariaz dagokionez, hitzarmena berritzeko edo berreskuratzeko zain dauden langileen ehunekoa nabarmen murriztu da: %68,9, 2018aren hasieran %84,5 izanik.

Lehen adierazi den moduan, hobekuntza hori gertatzearen arrazoia izan da EAEko negoziazio sektorialak aurrera egin duela 2018an, eta Bizkaian iraungita zeuden bi sektore hitzarmen berreskuratu zirela: Eraikinetako garbikuntza eta Metalaren merkataritza. Hala eta guztiz ere, EAEn badira oraindik iraungita dauden sektoreko hitzarmen garrantzitsuak, hala nola Gipuzkoako eta Arabako industria siderometalurgikoarena, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Bulego eta Despatxuena; izan ere, oro har, 50.000 lagun baino gehiago hartzen dituzte eraginpean.

Hala ere, iraungitako hitzarmenei luzatuta daudenak gehituz gero, 2019. urtearen hasieran 10 langiletik ia 7k hitzarmena berritu edo berreskuratu gabe dute.

11. GRAFIKOA.
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2019. URTEAREN HASIERAN



- 2019an hitzarmena iraungita duten eta eta goragoko eremuko beste hitzarmen baten babesik ez duten langileen ehunekoa
- 2019rako indarraldia luzatuta duten eta berritu gabe dauden hitzarmenen eraginpeko langileen ehunekoa
- 2019 baino lehen erregistratu ziren eta indarraldi arruntean dauden hitzarmenen eraginpeko langileen ehunekoa

Lurralde eremuei dagokienez, hitzarmenak luzatuta edo berreskuratzeko zain dituzten langileen ehunekoa %95,7ra igotzen da lurralde arteko eremuan, eta sektore mailan, garrantzitsuenak EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeena da, 12.000 langile baino gehiago baitaude hitzarmena berritu gabe 2009. urteaz geroztik, baita Ikastolena ere, 4.600 langile baino gehiago eraginpean izanik.

Gainerako lurralde eremutan, egoerak hobera egin du. %50,8 da Araban (%67,9 zen 2018an), %59 Bizkaian (2018an %83,2), %83,6 Gipuzkoan (%89,7 zen 2018an), eta Estatuko eremukoetan, aldiz, %54,8 (2018an %59,3).

Lurralde eremu guztietan nabarmen murriztu da hitzarmena luzatuta edo berreskuratzeko zain duten langileen kopurua, baina Bizkaian izan da murrizketa handiena: 24,2 puntu aurreko urtearen aldean.

Hitzarmena iraungita duten langileei dagokienez, lurralde arteko eremuan ez dago langile bat bera ere egoera horretan, baina EAEn eragina duten Estatuko eremuko hitzarmenetan %10era igo da, funtsean, Ingeniaritzako eta Estudio teknikoen Bulegoetako Hitzarmen Kolektiboa iraungita dagoelako.

I.9 LAN GATAZKAK

GREBAK

Lan eta Justizia Sailak argitaratutako informazioaren arabera, 2018ko urtarriletik azarora bitarte 216 greba erregistratu ziren Euskadin: 45.394 langilek parte hartu zuten eta, guztira, 95.282 lanaldi geratu ziren jardunik gabe. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zenbateko horiek %11,3ko, %0,75eko eta %17,8ko hazkundera adierazten dute, hurrenez hurren.

Galdutako lanaldien %48,6 greba sektorialen ondorio izan ziren; bi gatazka garrantzitsuenak hezkuntzaren sektorean gertatu dira, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan eta EAEko gizarte ekimeneko ikastetxeetan, eta horietaz gain, Bizkaiko Bulego eta Despatxuena ere aipatu behar da.

Hirugarren sektorean bildu ziren greba gehien (140, guztizkoaren %64,8), eraginpeko langile gehien (40.343, guztizkoaren %88,9), baita galdutako lanaldi gehien ere (67.614, guztizkoaren %71). Bigarren postuan Industria dago, 73 grebarekin, eraginpeko 4.982 langilerekin (guztizkoaren %11) eta jardunik gabeko 27.582 lanaldirekin (guztizkoaren %28,9). Bestalde, eraikuntzak 3 greba izan ziren eta 69 langile hartu zituzten eraginpean (guztizkoaren %0,2); sektore horretan, 86 lanaldi galdu ziren.

Negoiazio kolektiboa izan zen greben %57,9ren eragilea, eta greben eraginpeko langile guztien %33k parte hartu zuen deialdietan, jardun gabeko lanaldien guztizkoaren %39,6 osatuz.

Aurreko urtean bezalaxe, Bizkaian izan ziren greba (110), parte-hartzaile (26.109) eta jardun gabeko lanaldi (53.173) gehien. Gipuzkoan 74 greba, 12.587 parte-hartzaile eta jardun gabeko 32.521 lanaldi izan ziren, eta Araban, berriz, 32 greba, 6.698 parte-hartzaile eta jardun gabeko 9.588 lanaldi izan ziren.

**5. KOADROA.
LAN GREBAK. URTARRILETIK AZARORA BITARTE**

	GREBA KOPURUA			PARTE-HARTZAILEAK			JARDUN GABEKO LANALDIAK		
	2018	2017	%ALDA K.	2018	2017	%ALDA K.	2018	2017	%ALDAK.
Araba	32	40	-20,0	6.698	8.931	-25,0	9.588	12.092	-20,7
Bizkaia	110	83	32,5	26.109	20.545	27,1	53.173	39.670	34,0
Gipuzkoa	74	71	4,2	12.587	15.578	-19,2	32.521	29.113	11,7
EAE GUZTIRA	216	194	11,3	45.394	45.054	0,75	95.282	80.875	17,8

Oharra: 2018an ez dira sartu urrian eta azaroan Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantzza Ministerioan aurkeztutako grebei dagozkien kopuruak, parte-hartzaileak eta jardun gabeko lanaldiak -betiere EAEn eragina izan dutenak-.

Iturria: Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza.

II. KONTRATAZIOAREN, AFILIAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA


2008ko krisialdiaren ondoren, 2014. urtetik aurrera EAeko ekonomiak susperraldiaren bideari ekin zion, urtetik urterako hazkunde tasa garrantzitsuekin: 2015 (%3), 2016 (%3,3), 2017 (%2,9) eta 2018 (%2,8); horri esker, galdutako enpleguaren zati handi bat berreskuratu ahal izan da.

Alabaina, azken hiruhilekoetan dezelerazioa sumatzen hasi da, aurreko hiruhilekoetan baino hazkunde tasa txikiagoak izaten ari baitira, baina, nolana ere, %2,4 edo handiagoak izanik.

Datozen hiruhilekoetarako aurreikuspenen arabera, euskal ekonomiaren urtetik urterako hazkunde erritmoak leuntzeko prozesu horri eutsi egingo zaio; Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak %2,3ko hazkundera aurreikusi du 2019. urte osorako.

Testuinguru horren barruan, afiliazioaren eta jakinarazitako kontratazioaren bilakaeran 2018ko datuak onak izan direla nabarmendu behar dugu, baita langabeziaren zenbatekoak murriztu egin direla ere.

II.1 JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOA



⁵ Tasa leunduak erabiltzen direnez, ausazko gorabeherak partzialki ezabatzen dira eta joeratik kanpoko datuak baztertu egiten dira; hartara, joeraren noranzkoa hobeto zehatz daiteke.

EAEn enplegu zerbitzu publikoetan jakinarazitako kontratuen kopurua %4,5 hazi da 2018. urtean, urtetik urterako datuetan, eta segidako bosgarren urtea da hau jakinarazitako kontratazioak gora egiten duena aurreko urtearekin alderatuta.

2017an bezalaxe, kontratu mugagabeen urtetik urterako hazkundea askoz handiagoa izan zen aldi baterako kontratuena baino (sinatutako kontratu mugagabeen kasuan %20,9, eta aldi baterako kontratuen hazkundea %3,1 izan da).

13. GRAFIKOA.
EAEN JAKINARAZITAKO KONTRATUEN BILAKAERA, URTEAREN ARABERA.



Iturria: SEPE.


*Familia etxearen zerbitzuko langileek sinaturiko kontratuak barne 1620/2011 EDren araudia aldatu ondoren.

Sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak diren arren –izan ere, sinatutako kontratu guztien %91,1 osatzen dute–, azken urteotan jakinarazitako kontratu mugagabeen kopurua asko handitu dela aipatu behar da, eta 2018. urtean argi eta garbi gainditu da krisialdiaren aurreko urteetan sinatutako kontratu finkoen kopurua.

Zehazki, 2018an 2007. urtean baino ia 12.000 kontratu mugagabe gehiago sinatu ziren EAEn; krisialdiak eztanda egin baino lehen 76.885 kontratu jakinarazi ziren.

Nabarmendu beharreko beste alderdi positibo bat zera da, finko bihurtu diren aldi baterako kontratuen kopurua: 2018. urtean 31.843 izan ziren, aurreko urtean baino %26,8 gehiago. 2007. urtekoak (32.747) baino gutxiago izan diren arren, 2008an bihurtutako kontratu kopurua gainditu da jada –urte hartan krisialdi ekonomikoaren hastapenetan geunden oraindik–.

14. GRAFIKOA.
EAE. SINATUTAKO KONTRATU MUGAGABEEN KOPURUA URTEAREN ARABERA.
MUGAGABE BIHURTUTAKO ALDI BATERAKOAK, ETA GAINERAKO KONTRATU
MUGAGABEAK





Jakinarazitako kontratazioak izan duen bilakaera lanaldi motaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu lanaldi osoko kontratazioa lanaldi partzialekoa baino gehiago hazi dela; beraz, azken urteotako joera alderantzikatu egin da.

6. KOADROA.
EAEN JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA, LANALDI MOTAREN
ARABERA

	2017	2018	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK	958.100	1.001.181	%4,5
Lanaldi osoa, guztira	562.459	590.259	%4,9
Lanaldi partziala, guztira	384.412	398.591	%3,7
Aldizkako kontratu finkoak, guztira	2.522	3.022	%19,8
Praktikak eta Prestakuntzakoak	8.707	9.309	%6,9

Iturria: SEPE.

Aldi baterako kontratuen iraupenari dagokionez, kontratu gehienak iraupen laburrekoak izaten dira oraindik ere –alderdi horretan ez da aldaketa handirik gertatu aurreko urteekiko–, baina txandakatzea, hau da, pertsona bakoitzak sinatzen dituen kontratuen guztizko kopurua zertxobait murriztu da segidako bigarren urtez: batez beste 3,08 kontratu pertsona eta urte bakoitzeko 2017. urtean, eta 2018an 3,06 kontratu.



Kontratu gehienak zerbitzuen sektorean sinatu ziren (%79,1), eta jarraian industria (%15,5), eraikuntza (%3,6) eta lehen sektorea (%1,8) datoz.

Horri dagokionez, EAeko BPGaren ia %70 zerbitzuen sektoreak sorrarazten duela kontuan izan behar da, eta sektore horretako zenbait jarduera sasoikakoak izaten direla.


II.2 GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

2018an, Gizarte Segurantzak argitaratutako datuen arabera, EAeko batez besteko afiliazioa %2,1 hazi zen. Hazkunde hori Erregimen Orokorrak, gehienbat, eragin zuen (%2,6); izan ere, segidako hirugarren urtez Langile Autonomoen Erregimen edo Araubide Berezian afiliatutakoen kopuruak jaitsiera txikia izan du (-%0,1).

Horretaz gain, esan beharra dago Erregimen Orokorreko afiliatuen hazkunde hori ez dela izan Etxeko Langileen Sistema Berezian erregistratutakoen kopurua handitzearen ondorio (-%0,8 jaitsi ziren), ezta Nekazaritzako Erregimen Berezian bildutako langileen hazkundearen ondorio ere (guztizkoaren %0,3 baino ez dira).

Izan ere, datu horiek azken bost urteotan ikusi dugun joerari eutsi zaiola eta joera berretsi dela adierazten dute; 2014ko maiatzetik, gure autonomia-erkidegoko afiliatuen kopurua gora eta gora ari da urtetik urterako datuetan, eta 2018ko abenduan (hileko batezbestekoa), 962.104 afiliatu ziren; erregistro hori 2007ko abendukoa (976.270) baino %1,5 soilik txikiagoa da (14.166 pertsona).


17. GRAFIKOA.
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIATUEN
KOPURUA EAEN (HIL BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)



Iturria: Gizarte Segurantza.

2018ko ekitaldiaren amaieran, afiliatuen %73,5ek lanaldi osoko kontratua zuten eta afiliatuen %23,2k lanaldi partzialeko kontratua; ehuneko horiek, nolahi ere, iazkoen antzekoak dira.

18. GRAFIKOA.
EAE. ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOA LANALDI MOTAREN ARABERA (URTE BAKOITZEKO 12/31KO DATUAK)*



*Nekazaritzako Sistema Berezian, Etxeko Langileen Sistema Berezian eta bestelakoetan (funtzionarioak, zaintzaile ez profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak kanpo.
Iturria: Gizarte Segurantza.


Afiliazioa kontratu motaren arabera aztertuz gero, 2018aren amaieran Erregimen Orokorrean⁶ afiliatutakoak 17.761 pertsona gehiago ziren aurreko urtearen amaieran baino, hau da, urtetik urterako hazkundea %4,1 izan da; aldiz, aldi baterako kontratua duten afiliatuak 286 gutxiago izan dira, hau da, aurreko urtearekiko -%0,1eko jaitsiera.

Kontratu mugagabea duten afiliatuen gorakada horrek fluxu positibo garbia adierazten du, non altak gehiago diren batak baino kontratu mugagabea dutenen kasuan, kaleratzeagatik, erretiroagatik edo heriotzagatik.

⁶ Nekazaritzako Sistema Berezian, Etxeko Langileen Sistema Berezian eta bestelakoetan (funtzionarioak, zaintzaile ez profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak kanpo.

Kontratu mugagabea duten afiliatuen hazkunde handi horren eraginez, oro har, afiliazioaren barruan duten garrantzia ere handitu egin da. Horrela, bada, Erregimen Orokorrean kontratu mugagabearekin afiliatutakoak⁷, 2018ko ekitaldiaren amaieran, %65,6 dira (2017an %64,6); aldiz, aldi baterako kontratua duten afiliatuak Erregimen Orokorreko afiliazioaren guztizkoaren %31,1 osatzen dute (2017an %32).

19. GRAFIKOA.
EAE. ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOA KONTRATU MOTAREN ARABERA (URTE BAKOITZEKO 12/31KO DATUAK)*



(*) Nekazaritzako Sistema Berezian, Etxeko Langileen Sistema Berezian eta bestelakoetan (funtzionarioak, zainzaile ez profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak kanpo


Iturria: Gizarte Segurantzza.

II.3 ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA ETA LANGABEZIA TASA

Jakinarazitako kontratazioaren eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaeraren ildoari jarraikiz, EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako langabeen kopurua urtetik urtera murrizten ari da etengabe 2013ko abendutik.

⁷ Nekazaritzako Sistema Berezian, Etxeko Langileen Sistema Berezian eta bestelakoetan (funtzionarioak, zainzaile ez profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak kanpo.

20. GRAFIKOA.
EAEKO ENPLEGU-BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA
(HILABETEKO AZKEN EGUNEAN)




Iturria: SEPE.

2018. urtearen amaieran, 119.674 pertsona zeuden erregistratuta enplegu-bulegoetan (53.021 gizon eta 66.653 emakume); alegia, duela urtebete erregistratutakoen aldean $-\%6,2$ ko jaitsiera gertatu da.


Sexuaren arabera, enplegu-eskatzaile moduan erregistratutako gizonen kopurua $-\%6,6$ jaitsi da, eta emakumeen kopurua, berriz, $-\%5,9$.

Langabezia tasari dagokionez, Eustaten Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) datuen arabera, langabezia tasa $\%10,3$ da 2018an, 2014ko puntu gorenetik ($\%16,1$) ia 6 puntu beherago. Jaitsiera handiagoa izan da 2018an gizonezkoen langabezia tasan, emakumeen langabezia tasan baino: $\%9,6$ gizonena, $\%11,1$ emakumeena.

21. GRAFIKOA.
BJA. EAEKO LANGABEZIA TASAK



22. GRAFIKOA.
BJA. EAEKO LANGABEZIA TASAK SEXUAREN ARABERA



II.4 ONDORIOAK

Aurreko txostenetan adierazi dugunez, azken urteotan jarduera ekonomikoak hobera egin du eta, horren ondorioz, enpleguak gora egin du eta langabezia tasak behera.

2018. urtean, krisialdiaren aurreko urteetan sinatutako kontratu mugagabeen kopurua gainditu da, eta lanaldi osorako sinatutako kontratuen kopurua (%4,9) gehiago hazi da aurreko urtearekiko, lanaldi partzialekoak (%3,7) baino, apur bat bada ere.

Erregimen Orokorreko afiliazioari, oro har, dagokionez, 2018ko amaieran afiliazioak gora egin duela aipatu behar da, eta kontratu mugagabea duten afiliatuen kopuruak ere gora egin duela; horrenbestez, azken horiek garrantzi erlatiboa %64,7tik %65,6ra igo da urtebetean.